

Zein da zure bezeroa?

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gure bezeroak minbizia duten pertsonak dira, ile-galera jasaten dutenak bereziki tratamenduen ondorioz, hala nola, kimoterapia edo bestelako tratamendu agresiboak. Bezero horien artean emakumeak zein gizonak aurkitzen dira, adin desberdinetakoak, baina batez ere tratamendua jasaten ari diren pertsonak. Denek dute helburu estetiko eta psikologiko hobe lortzea, beren itxura eta autoestimua mantendu nahi baitituzte prozesu gogor honetan.

Perfil horretako pertsonak, oro har, sentikortasun fisiko eta emozional handia dutenak dira, minbizia eta haren tratamendua bizitzeak eragin zuzena baitu ile-galerarekiko eta itxura-aldaetarako duten pertzepzioan. Horregatik, kalitate handiko eta eroso den pelukak bilatzen dituzte, azalarekiko atsegina eta itxura naturala eskaintzen duenak. Era berean, ez dute produktu bat bakarrik behar: askotan gida, laguntza eta aholkularitza bilatzen dituzte, peluka nola jantzi, nola zaindu eta nola mantendu jakiteko, baita prozesu emozionala eramateko sostengua ere. Eta horretarako gaude gu.

Ekonomikoki hitz egitean, gure proiektua edozeinek edukitzeko aukera izatea nahi genuen. Horretarako, ordaintzeko gai ez direnatzat diru-laguntzak ditugu. Beraz, ekonomikoki bakoitzak duen egoera ez denez kontuan hartzen, ileordea behar duten guztien eskura dago gure produktua.